

# EUSKAL KONTSUMITZAILEA

Gutxiago kontsumitu behar dugu!

Gehiago kontsumitu behar dugu!

Herritarrok beti asmatzen dugun garaian bizi gara. Gutxiago kontsumitzen badugu, planeta salbatuko dugu. Gehiago kontsumitzen badugu, ekonomia bultzatzen dugu.

## KONTRAESANKORRAK

Jasangarria izan eta tokikoa bultzatu behar dena barneratua duen gizarte bat gara. Hala ere, behar duguna baino gehiago kontsumitzen dugu. Kate handien aldeko apustua egiten dugu. Eta geroz eta gehiago on line erosten dugu.

## EZ OSO KONTSEKUENTEAK

Gainkontsumoa errealitate bat da. Gauza gehiago eta gehiago maiz eskuratu behar ditugu. Gazteek dute kontsumismo-patroia barneratuta gehienbat. Bereziki erropa, oinetako eta teknologiari dagokionez.

## HOMO CONSUMERS

Tokiko merkataritzak arrakastarik ez izatearen errua/erantzukizuna beti hirugarrenena da. Alokairuaren prezioek, erakundeek, negozioa ireki duen pertsonen ezagutza faltak... du errua. INOIZ EZ GUREA, KONTSUMITZAILE GISA

## HOMOGENEOAK

Berezi izatea gustatzen zaigu, baina ez hainbeste. Modu homogeneoan kontsumitzen dugu. Batez ere gazteenek. Inditex bere erreferentzia-katea da. Influencerrek eta jarraitzen dituzten pertonek markatzen dituzte tendentziak.

## NEOPOLITANS IZATETIK URRUN

Oso urrun gaude errealitate honetatik. Zer da Neopolitans izatea? Era arduratsu, etiko eta justuan kontsumitzea. Bizitzeko era hau besarkatzearen helburua planeta salbatzea da.

## BULARREKO HAURRAK

BIZKORTASUNA. Dena nahi dugu. 48 orduko itxaronaldia luzea izaten hasten da. Amazon fenomenoaren aurrean gaude.

# TOKIKO MERKATARITZA EUSKAL KONTSUMITZAILEEN BURUAN

## KONTRAESANKORRAK GARA.

Tokiko merkataritzari buruzko diskurtso publikoa ondo ezarrita dago euskal kontsumitzailearen buruan. Uste dute tokiko merkataritza beharrezkoa dela. Baina... tokiko merkataritzaren errealitatea eta honekin dugun harremana ez dator bat diskurtsoarekin. Gezurretan ari zaizkigu gure berriemaileak? EZ BOROBILO. BAINA BESTE GAI BATZUK LEHENESTEN DITUZTE: PREZIOA, BARIETATEA...

### "BIZITZA OSOKOAK"

Pertsona batzuentzat, tokiko merkataritza bizitza osoko saltokiak dira, eta hemengo jendearenak. Erabat baztertuz tokiko merkataritzatik «bazarrik», prezio baxuagoko fruta-dendak... eta halako saltokiak

Kalitatea tokiko merkataritzaren sinonimoa da. Agian produktu garestiagoak dira, baina gehiago irauten dute. Eta oso datu garrantzitsua, KONPONDU EGITEN DIRA.

## 2.

### KALITATEA

Opari, kapritxo eta momentu berezietarako tokiko merkataritzara jo ohi dugu. Nola eman dezakegu jauzi kualitatibo bat eta gehiago normalizatu merkataritza txikiko kontsumoa?

### OPARITZEKO

## 3.

Z GENERAZIO ETA MILLENIALENTZAT BATIK BAT (modari dagokionez) Ez direla "modara" joaten, eta batez ere "amek" eta "amonek" kontsumitzen dutela bertan diote. Baina, batez ere, beren parekoek ez dituzte denda horiek zabaltzen. HOMOGENEOTASUNA. Hare gutxiago influencerrek.

## 4.

### "ATSOENAK"

## GARESTIA

BATEZ ERE MILLENIAL ETA Z BELAUNALDIKO GAZTEENENTZAT. Gehiago baloratzen dute kantitatea erostea kalitatea baino. Beren diruak kate handietan eta Interneten "gehiagorako ematen" duela ikusten dute. HOMOCONSUMERSen isla leiala.

# BA AL ZENEKIEN?

## ON LINE EROSTEKO UNEA GAUA DELA

Gaua izaten da unerik ohikoena mobilarekin lasai ibiltzeko. Sofan, eguna bukatutzat emanda eta erlaxatzeko modu gisa. Gauak eta igandeak. Eta momentu idiliko hau da, erosteko momentu aproposena. Lasaitasuna edota aspertuta egotea on line erosketentzat ezinbesteko aliatua.



## IRAGANA IDEALIZATZEN DUGULA



**EZ GARA OSO KONTSEKUENTEAK.** Ez gara tokiko merkataritzaren orainaz arduratzen eta atsekabez begiratzen diogu. Maitasunez, samurtasunez eta nostalgiaz gogoratzen dugu, txikitako oroitzapenek markatuta. Baina ez gara konturatzen tokiko merkataritzaren oraina eta etorkizuna gure esku daudela.

## FENOMENO BERRI BAT DUGULA



Geratzeko iritsi da. Gero eta gehiago kontsumitzen dugu, gero eta antsietate handiagoarekin, eta ia konturatu gabe, estreinatuko ez ditugun produktuak pilatzen ditugu. Hemen sartzen dira salerosketako On Line plataformen arrakasta: Wallapop eta Vinted. Erabilienak. Gazteen mugikorretan falta ez diren app-ak.



## ZYGMUNT BAUMANEK AURREIKUSI ZUELA

**Erantzuten al dio euskal gizarteak dikotomia honi?**

Kontsumo gizarte guztiz kontraesankorra da. Alde batetik zera saltzen digu: kontsumitzeak zorientasuna ekarriko digu. Baina, aldi berean, hau zapuzteko ahaleginak egiten ditu. Honen helburua: kontsumoaren erruber inoiz ez geratzea. Beraz, zorientsuak gara benetan edota frustratuta bizi gara?



### KONTSUMOBIDE

**«GERTATZEN EZ ZAIZUN ARTE, EZ DUZU IKERTZEN, EZ ZARA KEZKATZEN».**

Horrelako organismo bat egotea beharrezkoa dela uste da.

Kontsumobide aipatzean, ezagutza maila ez da oso altua.

Jendeak ez daki argi Udalek edo Eusko Jarlaritzak martxan duen zerbitzua den



### Gazteak

BAZENEKIEN NEWSLETERRAK HILDA DAUDELA?

INFLUENCERREK MARKATZEN DITUZTELA GAUR EGUN JOERAK?

PAYPALEK ETA TXARTEL BIRTUALEK GERO ETA INDAR HANDIAGOA DUTELA?

APP-EK WEBGUNEEN LEKUAN HARTU DUTELA?

FACEBOOK ZAHARKITUTA DAGOELA DAGOENEKO?

INSTAGRAMEN AGERTU EZEAN EZ DELA EXISTITZEN?